

**Jean Robin**

**KOPLAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Bertsolaritzaren historia II*, (Patri Urkizuren edizioa). Etor, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=375>

# ANDREN APHAIN DURAZ

Setiatuak gabeaz,  
Izituak gerlateaz,  
Melankonian ez erortzeko  
Gaiten arin kantatzeaz.

Ez da ez berdin sujeta  
Gure herrietan falta:  
Mende huntako andderei esker,  
Badakigu nola dosta.

Bion daiola modari  
Bai halaber modistari,  
Sortzeak eskas eman guzien  
Hura dugu konpligarri.

Oi, zenbat duen sekretu  
Nahi bada probetxatu!  
Ñaño berez jigante egiteko,  
Behar den guzia badu.

Marianak nahi baitu  
Hedoiak buruz ukhitu,  
Girgileriaz eginikako  
Ustai erdi bat aski du.

Baldin beldur bada-arroxa  
Dorrea haizeak etxa,  
Jendek hirririk ez egiteko,  
Huna molde bat errexu.

Zimendutzat eman betzo  
Zenbeit istupa xorointto,  
Segoz hek ongi gantzutu geroz  
Haizeaz da trufatuko.

Heldu bazaio dorrera  
Marmalorik tentatzera,  
Hei jazartzeko badire-ezpatak  
Eginak moda berrira.

Ez nik, oihuz dio, ez nik  
Horlako ausartziarik,  
Beldur ninteke zenbeit gaztigu  
Izan nezaken zerutik.

Marianak asmu hau du  
Entzun orduko gustatu,  
Ordean arroxa lagun nahiz  
Huna nola zaion lothu.

Ago ixilik sinplea,  
Hori dun bada-erratea:  
Gure grekak ez ditun hain gora  
Nola Babelgo dorrea.

Horla behar ditinagu  
Gizon gaizoak tronpatu:  
Nahi ez bahaiz hainitz bezala  
Bethi neskatxa urdindu.

Hi behar haiz, hi, ixildu  
Edo nerekin aithortu,  
Mutzurdin hanbat ez leitekela  
Ez balitz hanbat aphaindu.

Nongo gaztea, nahi dun,  
Zin zinez hurbil dakigun,  
Gure kan [...] ikusi eta  
Laster gibela goanen dun.

Herrian nork ez othe du  
Nik diodana frogatu?  
Zenbaitek ez dituzte senaitzat  
Bere parurak izatu?

Othe da bada Laphurdin  
Hautan bezanbat mutzurdin?  
Halaber ez dakusat badela  
Nihon hain bertze berregin.

Ikusazue Katixak  
Zein gora tuen fontantxak  
Bada ez omen tu beherago  
Manatu kalendabuxak.

Huna non den berregina  
Iduri andre-erregina,  
Damu-gaixtorik ez du izanen  
Espoztat zenbeit dauphina.

Ez ahal da aldarerik  
Hau bezala aphaindurik?  
Aranzazuko birjinak ere  
Deus ez du hurbilekorik.

Elizan da ikusiko  
Bertze guziez gorago:  
Arren da tenplu sainduarentzat  
Errespetuz estaliko.

Ethorri zaio dolua  
Ordutik du mandelua,  
Munduko legeak nahi baitu  
Ibil dadin kukuldua.

Hauk duk hire ohorea,  
O mundu dohakabea!  
Jaunaren ministroen gainetik  
Hik daramak, hik, florea.

Predikariak gaur goitik  
Ahal dagozke ixilik  
Elizak bere men aldetik  
Ez duen zauri berririk.

Handitarik xumetara  
Andren [...] sehatara,  
Heldea nota gaitz hau da hala  
Banatu guzietara.

Getaria andreari  
Ezin jarraik eta nahi  
Estofaz ez bada fazoinaz du  
Madama handi iduri.

Pegarrekoek hain guti  
Nahi dute parrik utzi  
Lehiaz guziak hari dire  
Zein ederkienik jauntzi.

Etxetarik ethortzean  
Zirriketuna soinean  
Doidoia zakiten animatzen  
Motho bat buru gainean.

Hala baitziren aspaldi,  
Aprendizkotarik ilkhi:  
Tinun baten moldatzeko orai,  
Non artexagorik aurkhi?

Ez da buru pelaturik,  
Ez eta kasko murriztik,  
Alegiako tupeta zenbeit  
Egiten ez dakienik.



Adi zazue zer duten  
Ilen azpian ematen,  
Istupa, xanpela, eta zurda  
Bertzerik ez da ikusten.

Holakoze dire eginak  
Antantur eta tinunak,  
Funts hortan dohaz gure arbaso  
Xoratuen tuntinak.

Balitz ontasun gosea  
Greken antolatzailea  
Urthea gabe egin lezake  
Dorrearekin etxea.

Petenta saltzaileak du  
Bere botika berretu  
Zorionean egun batez zen  
Gure herrira agertu.

Gure sehien soldata  
Damurik hobea ez da:  
Zirikuz egin eskularruak  
Ez lituzkete ez falta.

Gabe hargatik ez dire  
Lonazkoak bada ere.  
Brasadatic lephora-iguzkiak  
Eskuak beldurrez erre.

Hitz batez dituztenean  
Zapata gonak soinean,  
Baionako panpinak diduri  
Ditutzula aitzinean.

Aparailu eder hortan,  
Besta eta igandetan,  
Bide berritan laurazka dire,  
Ikusiko pasaietan.

Nola othe dute ahantzi  
Etxetan zer duten utzi.  
Haintzur, jormaiak. Helaz, hetara,  
Behar dire berdin jautsi.

Nihor bada ene koplez  
Estomakatzen suertez,  
Goragalea khentzeko dire  
Soberanoak ordainez.

# ZER EGIN ZARE KOPLARI ZAHARRA

Zer egin zare koplari zaharra,  
Gure andderen xaxari suharra,  
Zure antzearen eta donuaren  
Behar handi ginduke, hemen gaude eske,  
Hel bada arren.

Donibaneko Panpina berriak  
Zu entzun nahiz daude egarriak.  
Gure bezinoak, zubiburukoak  
Ez dauzka gutiago zure aditzeko  
Hirrits handiak.

Herdoildua dut, diozu, antzea  
Ahantzi nuen kopla moldatzea,  
Haren xerdentzeko eta zorrotzteko  
Ezta ez Bergararik, ez Gagne-petitik  
Aski jakinik.

Egun bakhoitzak dautzu hornituko,  
Erran gai franko bersu moldatzeko.  
Perma zaite, beraz, ez egon ikharaz,  
Ordean zuri lana, hartzen duzun pena  
Zazu pagaraz.

Horra Katixak non tuen ahantzi  
Bere funtantzak bazterrera utzi,  
Muthil bat bezala manda-zain bat nola,  
Buru-murritz dabila, ahantzten duela  
Neskatxa dela.

Mairu-herritan ez, ez da ikusten  
Guk mende huntan duguna miresten:  
Han emakumea zahar bai gaztea,  
Estalirik dabila, gogor daukala  
Bere idola.

Ifernuak, bai hark bakharrik du  
Oraiko moda itsusia asmatu.  
Nongo portaletak, nongo erretaulek  
Hanbat dute eskandala ematen bai nola  
Khristau-alabek?

Esku batean zakhutto bat dute,  
Zeina Ridikul deitzen baidute,  
Erran-komuna da gure zaharrena,  
Jabea irrigarri tresnek hau iduri,  
Imasun propi.

Gure Zezili, oi, zer ikuskari!  
Beso guzia dabila ageri:  
Hezur puska batzu beltz eta hiratu,  
Jitano bat iduri, bain da nardagarri,  
Gure Zezili.

Orai, zer othe da eskas bertzerik,  
Gizon arropak manatzea baizik?  
Emazteki antza, neskatxaren traza,  
Osoki ahantzteko eta borratzeko  
Behin bethiko.

Tenplu sainduan, aingeruen balsan,  
Ikusiko da aparailu hortan.  
Jainkoaz, munduaz, lurraz, ifernuaz,  
Guziez da burlatzen, kopeta du ezen  
Gora altxatzen.

Jende xeheak ezin aldarerik  
Ikus dezake andre hunen gatik;  
Burua du arin, ttinpla baten berdin,  
ezkila dorrekotzat, haize seinaleztat  
Non hulakorik?

Bere kadirak beldurrez min egin  
Lumatxatto bat behar du eragin:  
Baten gaitza dena bertzearen ona,  
Hor du janbon gaizoa ofiziokoa,  
Eta fetxoa.

Azkenaz goiti gizonak behar du  
Soilarutarik ahalkez urrundu:  
Han, han, istapeka eta zein lehenka,  
Ohi dire ikusten dutela ahantzten  
Andre izaten.

Ah! Jaun-aphezek, hain xuxen khoroa  
Baitute hirur sarrailetakoa.  
Bertzenaz sartzera leitezke mentura,  
Bertze guziak baino jarriak gorago  
Han izateko.

Eri gaixki da gure mundutarra,  
Aphetetara laster deihadarra:  
Orduan, nigarrez, hiltzeko beldurrez;  
Moda du, bere ustez, higintzen zin-zinez,  
Bainan gezurrez.

Itzur bekio herio latzari,  
Gure eria nor den da ageri:  
Madalen falsoa, alegiakoa,  
Madalena ezpainez, mundutarra obrez,  
Eta bihotzez.

Gure erheztunak galdu ziren arren  
Hemen ditugu erhiak, bai hemen:  
Zorrak zor-tegira jauntz gaiten modara,  
Gaiten oraino dosta, zer nahi den gosta,  
Gaiten bai dosta.

Ezin bertzean, zahar garenean,  
Mundua gutaz aseko denean,  
Jainkoari gaizko emanen bethiko

[...]

[...]

[...]

Jauts gaiten orai mail bat beherago,  
Zer iragaten den han ikusteko.  
Estofa ez bada, badute fazoina,  
Ez baditezke andre, bederen anddere,  
Agertzen dire.

Lehen, kopeta diztiarazteko,  
Oi, zer arraultze freskoren xuringo!  
Orai, edergailu bisaia behar du,  
Ile zenbeit dilindan, ordena herrunkan  
Eta konpasan.

Kotoin marratu, angeles xuria,  
Etxaie aski gainekotz propia:  
Zerbeit gehiago behar agertzeko,  
Pekina da sobraxa, perkala gutixe,  
Legez gutixe.

Gure Maria da saldu nahia,  
Hargatik dauka botika idekia:  
Jende beretzeko eta azipatzeko,  
Non da merkataririk, non arrantzalerik  
Hunen parerik?



Apastatzat du begitarte ona,  
Eta amutzat soinik ederrena:  
Hula zurikatzen, hula du peskatzen,  
Gizon atun gaizoa, Piarres tontoa,  
Hula peskatzen.

Besta egunetan, bezpera denboran,  
Mundu guzia delarik elizan,  
Zaiku aphainduko pasaietarako,  
Neskatxa lagunekin, galaia berekin  
Da ibiliko.

Ez karrika, ez, ezta zabal aski,  
Lerro handi hau ezin du iduki,  
Besoz-beso dohaz, hirriz, bai karkaraz,  
Jendeak darasala, ez dute axola,  
Zer nahi dela.

Koplari jauna, goazen sehitara,  
Eta lehenik nafartarretara:  
Huna, Antonia, horra hor Maria,  
Hunakoan ikatzkin, laster dira egin  
Andre berregin.

Gure sehiak, guziz nafartarrak,  
Etxeko-andren portalet ber-berak.  
Oi, nola dabilzan igande, beztetan,  
Zinta gorri bat gora, bertze bat behera  
Gure kaletan.

Baldin miraila libro ez badute,  
Tirrina bat ur orobat zaiote:  
Han du Antoniak, han gure Mariak,  
Ikusten arpegia, duenez garbia,  
Eta xuria.

Aitak alaba nekhez ezagutzen,  
Hain mudatua ezen du topatzen,  
Orhaze fin hutsa, flokatzat arrosa,  
Buztana feraturik, xala bat jauntzirik,  
à la francesa.

Etxelartarrak, urdazuriarrak,  
Ezin ezagut bere herritarrak:  
Hemen dire ezen bertzela aphaintzen.  
Buztana feraturik, xala bat jauntzirik,  
à la francesa.

Laphurdikoak balinba ez dio  
Nafartarrari amorrik utziko:  
Petenta arrundak lephoan xerrendak,  
Urrezko gathe ordez letoina badute  
    Berdin zaiote.

Nonbeit handia behar da soldata,  
Urthe-berriko joria presenta;  
Non dik hanbat briju eta edergailu?  
Nihork galde ez beza, berak pausa beza,  
    Pensa, bai, pensa.

Gure matronak begoz direnentzat,  
Sobra dakite andre hek beretzat:  
Oxala burkuak, azukre, kakauak,  
Utz-liotzoten libro, kikera hutsteko  
    Ausarkiago.

Luietan dire mundu huntan bizi,  
Bi parabisu nahiz irabazi,  
Oi, zein gustu ona gure matronena,  
Sasia badezate konpli eta bethe,  
    Hain gustu ona.

[...]

[...]

[...]

Eta papur sobrak  
ditu hartuko.

Ama prudentak alaba nahi du  
Lehen bai lehen baitezpada saldu.  
Feria nihon da, gure haurra han da,  
Satanen maximekin, ponpa guziekin  
Eta obrekin.

Aitabitxiak eta amabitxiak,  
Harentzat egin agintza guziak,  
Han ditu ukhatzen eta ostikatzen,  
O alaba, o ama, nork othe darama  
Zuen arima?

Zu, tronpetari Jainko gorarena,  
Haren mezuen kridari zarena;  
Altxa boza gora, ez ixil, ez bara,  
Hertxa aldez bai moldez, bortxa-eta amorez,  
Othoitz, nigarrez.

# LARRUNEN BAZKAL-ONDOKO DESERTA

Non othe naiz ni aurkhitzen,  
Zer zorion dut dastatzen?  
Konpainia maitagarri batek  
Oihuz nau abiarazten.

Izpiritu Larrungoa,  
Esker dautzut bethikoa,  
Zure bidez baitut iragaten  
Egun bat dohatsuzkoa.

Beha dezadan inguru,  
Lorietan naiz mukuru:  
Jende plantez setiatua,  
Beharrik nintzela sorthu.

Ermitau bat dut ikusten  
Mortura ihes egiten,  
Ejiptokoa, ohi bezala,  
Debotez hau du publatzen.

Aphez, Beata Birjina,  
Kalostretan nahi dena,  
Munduko batekin banuke  
Ikuskari konpliena.

Bistaren kontentatzeko,  
Batzarraren osatzeko,  
Dohainaren begira daudenak  
Zenbat ez dut aurkhituko?

Atsegin emendagarri,  
Gauza bat da miragarri,  
Apetitu bat baita ikusteko  
plat-guzien xukhagarri.

Ez, ez, esker mendiari,  
Bai ordean jan gauzari:  
Hortzak khamutsak ez baditugu  
Zordun gaizko Mariari.

Bion daizula Maria,  
Zaren luzaro bizia:  
Gose-eztenari janarazteko  
Antze duzu berezia.

Urthubiako friantak,  
Zer dire zuen Banketak?  
Gure Mariak ahantzten ditu  
Zuen kuziner balentak.

Xokatua Bizkondea  
Bai haren gorthea  
Desafio ematen dautzute,  
Gure Maria andrea.

Duzularik abantaila,  
Dudarik ez den bezala,  
Zure espostzat da erregeren  
Sukhaldeko prinzipala.

Hauxe da, hauxe dohaina,  
Ardietsi duzun oina;  
Larrungo tupinan egin zare  
Kuzineren erregina.

Zu horla lausengaturik,  
Gu ere bai dostaturik,  
Larrungo San Miguelen kapera  
Ez dago berregindurik.

Dugun, beraz, abiadan,  
Zerbaitto eman ofrendan:  
Gerthakari gaixtotik Jainkoak  
Gaitzan iduk bere goardan.

Orai presuna gazteak,  
Orai zerura galdeak,  
Hurbil den huntan eska detzagun  
Bakhotxak dohain gureak.

Zu, Maria, altxaturik,  
Gu ere bai dostaturik,  
Etxeko andre lhartzetakoak,  
Ez dago horla pagurik.

Gure ostaler zalduna,  
Hirriz kontent etzarena,  
Erraguzu abiatu gabe,  
Zer den gure penarena.

Galdetu duzu korteski,  
Horra bada guk bizarki:  
Jainkoari gomenda gaitzatzu,  
Arren goazen dohatsuki.



Agur beraz, zaude brabo,  
Berriz ikus arteraino:  
Goiz onik baizen ezin dukezu  
Larrun hauzo dukezuino.

# APHEZ JURATUAK

Altxa dezagun boza eta kanta gora,  
Bertsu estranjer batzu detzagun fagora:  
Ez nauzu deklaritzen nor duten autora,  
Ala den bikaria, ala den erretora.

Zu zaitut materia, monsieur Iharasarri,  
Nazioneak fidel zaitu bere zerbitzari.  
Nola behatzen diozu gure Elizari,  
Trublatua zabilta haren gerizari.

Uste duzu lehen duzula burua,  
Kasik gobernua ere diozula mundua:  
Hainitz bolanta duzu, o sendimendua,  
Utzi duzunaz geroz gure aita seindua.

Theologian zinen denboraz profesor,  
Orduan baitzinduen orotarik agur.  
Sujet handiak-ere zure ziren beldur,  
Argumentalaz geroz ez baitziren segur.

Lauda ere zinitzaket bazinu merezi.  
Bainan etsaiak daitzu oro galarazi.  
Lehen xismatikoetan zu zinen berezi,  
Aita seindu maiteari erranik goraintzi.

Monsieur Iharasarri, Agerreko apheza,  
Berthute gabea da orai zure meza.  
Juramentu beltz hori turna bazineza,  
Egundaino bezala zinitake preza.

Zure baithan sar zaite eta eman gogora  
Gisa hortan zoazila leziaren ondora.  
Karitatez mintzao da legiaren autora,  
Imita dezazula Kanboko erretora.

Larrasoron bikari, monsieur Gorriti,  
Hura ere ibili da goiti eta beheiti.  
Hark bezala egizu zuk ere prudentki,  
Flakatasun handiaz duzula urriki.

Exhorta zazu buru arin laguna,  
Azantzako apheza, Sorhondoko xalduna:  
Zuentzat ilhundu da argizko egia,  
Legean fermu gaudenek orok dakiguna.

Monsieur Iharasarri, aditu dut berria.  
Hiriarti kita-arazi diozula herria...  
Baldin hartu izan balu zuk duzun legea,  
Baliatuko zaukon jaun hari egia.

Ala finki baituzu egina botua,  
Soberanoaren kontra arras gogortua:  
Damurik izan zare mundurat sorthua,  
Estola, kasolaz Jaunak sakratua.

Monsieur Marithurri, Senperen erretor,  
Zu bezain prest izan da hura ere erorkor.  
Erregeen erregia ezta ez ahantzkor,  
Hala gertha baledi oraino nonbait hor.

Zu estonatzen naiz, monsieur Duronea,  
Horren maite duzunez bada ilhunbea,  
Itzul-azu gu gana, o! desirkundea,  
Zuzen nahi baduzu zeruko bidea.

Erretretan sar zaite zure lagunekin,  
Pobreak sokorrituz zenbait barurekin,  
Mundura sorthu zinen donurekin,  
Soberanoa eman da hainitz damurekin.

Bihotzez egizue, o! nigar marraska,  
Dugun aita seindua barne onez besarka,  
Hari sumeti zaite joan gabe hasarka,  
Parabisura goazen guziak, galtzarka.

Bertsu huntan mintzo naiz monsieur Larrondori,  
Nola gogortu zaien Senperen orori,  
Aristokratek dezagun guziek sokorri,  
Zeren juramentura ez baita erori.

Bera eskapatu da hainitzen artetik,  
Ardi-inozenta nola otsoen artetik.  
Legean fermu dago Jesu-Kristo gatik,  
Beraz laudagarri da, guzien gainetik.

Flako, miserablea, non zare, Etxeberri,  
Munduari eragin diozu zenbait irri,  
Zure erretoria oraino ezta ageri,  
Paperak ornen dira urerat erori.

# NAZIONEKO BESTA SENPEREN

Senperen egin dute besta bat handia:  
Deklaratzera noha, guziek guardia.  
Jaun erretorak ditu oro gomitatu,  
Nazioneko besta dute ohoratu.

Atso zahar batzuek, ongi aphaindurik,  
Plazala bildu dira, elgar aditurik,  
Ikhusi dutenean han eztela deusik,  
Ostatura joan ziren, bihotzak ilhunik.

Ostatuan sartzian, etxeko jaunari  
Atsoek erran diote: «Hots, fite, Bettiri,  
Gaur besta handi dugu, iguzu jatera,  
Juan behar dugu gero guziek plazara».

Bazkaiteko denboran, batak bertzeari  
Oihu egiten zuten: «Hire graziari!  
Bibe nazionea!» zioten gogotik,  
«Gaztetan eztun orai gu bezalakorik».

Bazkaldu direnian atso gaztetuak,  
Kontrapasetan dire hasi zoratuak:  
«Hots, begira huts-egin», zioten atsuek,  
«Dostatu behar dugu gaur hemen guziak».

Dantzatu direnenan, arbaso zaharrak  
Kanporat ilki dira, husturik sakelak;  
Plazan arribatzean, bisaiak gorririk,  
Mundu guzia zagon irriz zabaldurik.

Jaun erretora berriz leihorat etorri,  
Handik konplimenduka zitzaie hasi:  
«Hots, ene haurrak, orai hor dantza zaitezte,  
Ni ere zuiekilan abia nindaite».

Atsoek errepusta jaun erretorari:  
«Zu beharko zaitugu ororen gidari!».  
Emaiten da trunkoa aintzingidaritzat,  
Atso zahar guzien gobernatzailetzat.

Hasi zenean beraz trunkoa dantzatzen,  
Gure atso guziak irriz eman ziren,  
Bere esku zimurrak emanik hanketan,  
Oro begira zauden besta handi hartan.

Gure atso gaizoak etziren unhatzen,  
Bere artzainarekin oro kontent ziren,  
Ordean heien senhar gaxoak etxean  
Tupina hutsa zuten bathu ilhuntzean.

Giza-gaizoak ziren plazalat ethorri,  
Bere emazten bilha zoroak iduri.  
Jaun erretorak hori ikhusi orduko,  
Oihu egin zioten baken egiteko.

«Zuk, Joanes, edan zazu, zuk ere Domingo,  
Ene eskuietarik zenbait arno trago.  
Bibe nazionea! egizu, zuk, Pello!  
Egun haserratzia deus eztu balio.

Gizon eta emazte dugun orok edan,  
Basoak trinkaturik omore onean;  
Zoazte elgarrekin guziak bakean».  
Besta akabatu zen hola arratsean.